

MIKELAZULO



*Mikelaren ohorez
jarria gizonez
zulo bat eliz-ondo
aurkituko zuek.*

*Haren zuloa baizen
zabalik denentzat
ez zen bailara hontan
gizonik birjintzat.*

*Putetxeen beharra
ezabatu horrek,
itxi beharra zuten
putetxe den-denek.*

*Mikela bere hartan,
betiko ber martxa,
putetxe, tabernari
ezin hartu hatsa.*

*Apezgo, dandalgoa,
ta jende puntuko,
hura sala eta kontra
ez ziren atzeko.*

*Elkar hartuta hoiek
pentsamen gaiztoa
egin zuten, gainera,
ondoko pausoa.*

*Mikela garbituta
haiek denak libre,
gau batean zioten
eman heriotze.*

*Gizonek ikusita
halere, jokua,
ume-ume hasi ziren
negar ta marrua.*

*Geldituak baiziren
Zulotxo gabeak,
ezin ahantzi zuten,
Haik bakardadeak!*

*Ondoan erabaki
zuten, ba gogoan
beti edukitzea
beren zulotxoan.*

*Mikelazulo, beraz,
jarria gizonek
zulo bat eliz-ondo
aurkituko zuek.*

**GARAI HARTAN ERRENTERIAKO KRONISTA
ZEN MITCHEL ZAMORAREN OLERKIAK.**